

Teknopolis: berritua Interneten

Lopez Viña, Rake!
 Marketin Saila/Elhuyar Fundazioa

Teknopolisek web gune berria estreinatu du: teknopolis.elhuyar.org. Web gune berria, 2007ko urritik aurrera emititu diren programa guztiak aurkituko ditu erabiltzaileak, osorik edota erreportajeka. Informazioa eskaintzeaz gain, osasunari buruz ditugun galderak bidaltzeko aukera izango du web gune berriak, eta programan bertan horiei erantzuten saiatuko da *Teknopoliseko* lantaldea astero-astero.

TEKNOPOLISEN WEB GUNEAK telebista-saioak berak dituen atalak ditu: Erreportajeak, *Elkarrizketak*, *Bi hitzetan*, *Mundu Ikusgarria*, *Pilulak*, *Osasun-galderak* eta *monografikoak*. Hala, erabiltzaileak, programak osorik ikusteko edo deskargatzeko aukera izateaz gain, atal bakoitzean emititzen diren edukiak banaka ikusteko edo deskargatzeko aukera izango du. Era berean, edukien bilaketak gaika ere egin ahal izango ditu. Gainera, hurrengo asteko programaren aurrerapena ere egongo da ikusgai web gunean.



Erreportajeak Interneten ikusi ahal izango dira, edo MP4 formatuan deskargatu. Bilaketak egiteko aukera ere badu web gune berriak.



Saioa ETBko hiru kateetan emititzen da astero, egun eta ordu hauetan: asteazkenetan, gaueko 21:30ean ETB3n; igandeetan, goizeko 11:15ean ETB2n, eta arratsaldeko 20:00etan ETB1en. Eta hemendik aurrera, zientzialeeke, ETBekin duten hitzorduari huts eginez gero, programa Interneten ikusteko aukera ere izango dute. Web guneaz gain, *Teknopolisek* badu beste berrikuntza bat ere aurtengo denboraldian: orain arte urtean sei hilabetez emititzen zen saioa, eta denboraldi honetan bederatzi hilabetera luzatuko da; beraz, urritik uztaileara bitartean astero-astero egongo da ikusgai.

Teknopolis telebista-saioa erakunde hauek babesten dute: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak.

Elhuyar Fundazioak 1999an ekin zion zientziaren eta teknologiaren inguruko telebista-saio hori ekoizteari. Urte hauetan, ETBren kateetan izan du *Teknopolisek* ikusle zientzialeeekin hitzordua.

Hamar urte ez dira alferrik pasatu, eta, urte hauetako ibilbidean, *Teknopolisek* sari hauek jaso ditu: 2006an, Tecnalia-ren III. Kazetaritza Sarirako accesita; urte berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza Sailaren saria eman zioten; 2006an bertan, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian izendapena jaso zuen Elhuyar Zientziaren Komunikazioa saileko kazetari-taldeak; eta 2002. urtean, Robotiker saria jaso zuen. 